

KANALAK

Gure produktua bezeroengana iristeko metodoak anitzak dira. Alde batetik, lehenengo modua kanal propio bidezkoa da, hau da, denda fisiko bat izatea edo online dende onlinea, hain zuzen ere, webgune baten bidezkoa. Beste alde batetik, elkartutako kanalen bidezko bidea ere badago. Azken mota honetan, gure produktuak enpresa handien baitan saltzen ditugu, haien dendetan sekzio bat negoziazio bidez eskuratuz. Hortaz, ulertu dezakegun moduan, jakina da, enpresak handiek gure irabazien ehuneko bat eskuratuko dutela.

Bi kanal motak alderatuz, gaur gaurkoz, gure enpresarentzat mesedegarriena dena elkartutako kanalen bidezko bidea dela diogu. Kanal mota honek gure enpresa txikarekin bat egiten du, gure eskaerak asetuz. Gure ideia gure produktua herriko dendetan saltzea da, denda horietan sekzio bat sortuz gure produktua erakusteko xedez.

Jakina da, guk aukeratutako kanal mota elkartutako kanal bat izanik, ez dugula hainbesteko onurak izango, aitzitik kanal mota honen bitartez gure produktua ezagunagoa egingo litzake merkatu nazionalan. Elkarketa hauen bidez gure bezeroen kopurua handitzea lortuko dugu eta horretaz gain gure enpresa ezagutzera eramango dugu inguruko herrietan.